

EUSKADIKO GAZTEAK LAN-MERKATUAN

Lan Merkatuaren Erroldaren analisi 2021



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Lehendakaritza
Presidencia



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, lizentzia honetan argitaratu dira: Aitortu- Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

Euskadiko gazteak lan-merkatuan

Lan Merkatuaren Erroldaren analisia

2021

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZA
Gazteria Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

PRESIDENCIA
Dirección de Juventud

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
METODOLOGIA	5
1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA LANARI DAGOKIONEZ	6
2. GAZTEEN ENPLEGUEN EZAUGARRIAK	9
2.1. Landunen enplegu kopurua	9
2.2. Lanbide-egoera eta -kategoria	10
2.3. Lan egiten duten enpresaren edo erakundearen jarduera-sektorea	13
2.4. Kontratu mota eta enplegu horretan duten antzintasuna	14
2.5. Asteko lanorduak	17
2.6. Lanean ari direnen lana ikasketekin lotuta izatea	19
2.7. Hileko sarrera gordinak	21
2.8. Beste lan bat bilatzea	22
3. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGABEEN EGOERA	23
3.1. Aurretiko lan-esperientzia izatea eta prestazio ekonomikoren bat jasotzea	24
3.2. Lana bilatzeko bideak	24
3.3. Lana bilatzen emandako denbora	27
3.4. Lana bilatzen den eremua eta lanagatik bizilekua aldatzeko prestasuna	29
3.5. Nahiago den lanaldi mota eta lanaldi partzialeko lanak hartzeko prestasuna	31
3.6. Kategoria jaistea edo diru-sarrerak murriztea dakartzaten lanak onartzeko prestasuna	33
3.7. Lana aurkitzeko oztopoak	34
4. EMAITZA AIPAGARRIENAK	37
4.1. Lanean ari diren gazteen egoera	37
4.2. Gazte langabeen egoera	38
4.3. Emakume eta gizon gazteen arteko aldeak lan-merkatuan	39

SARRERA

Gazteen Euskal Behatokiak, gazteriak hainbat eremutan bizi duen egoeraren ikuspegi eguneratua izateko, Euskadiko gazteek enpleguari dagokionez duten egoera aztertu du berriro ere.

Enplegu bat izatea diru-sarrera propioak izateko oinarria da, eta, ondorioz, ahalbidetzen du (edo ez, inguruabarren arabera), emantzipatzea, eta bizi-proiektu pertsonalak garatzea.

Ikerketa hau 2021eko Lan Merkatuaren Erroldaren Inkestan jasotako datuetan oinarritzen da, zehazki eskaintzari dagokiona. Lan eta Enplegu Saileko Estatistika Organo Espezifikoak burutu du inkesta hori, baina txosten honetan erabiltzen diren datuak Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Estatistika Organo Espezifikoak kalkulatu ditu, eta Gazteen Euskal Behatokiak aztertu ditu.

Lan Merkatuaren Erroldaren Inkestan alderdi orokorrak aztertzen dira, hala nola lanean edo langabezian dauden gazteen bolumena, baina baita enpleguari buruzko alderdi zehatzak ere, adibidez, kontratu edo lanaldi mota, diru-sarrerak, Gizarte Segurantzako kotizazioa, etab., edo langabeen artean enplegua bilatzeari buruzkogiak, esaterako lan bila emandako denbora, lana bilatzeko bideak, etab.

Txosten hau 16 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera aztertzen du gehienbat, baina lan egiteko adina duten biztanle guztien (16-64 urte) datuak edukitzeak aukera ematen digu 30 urtetik beherako egoera beste adin-talde batzuekin alderatzeko eta, horrela, adinak eta lan-esperientziak gora egin ahala datuek izan dezaketen bilakaera aurreikusteko.

Gainera, 2019an egindako inkestaren datuak edukitzeak Euskadiko lan-egoeraren bilakaera aztertzen lagunduko digu, oro har, eta, bereziki, gazteen lan-egoerarena.

METODOLOGIA

Lan Merkatuaren Errolda (eskaintza-fasea) Eusko Jaurlaritzak aldian-aldian egiten duen inkesta da, enpleguko eskumenak bere gain hartzen dituen Saileko Estatistika Organo Espezifikoaren bidez, kasu honetan Lan eta Enplegu Sailekoaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren biztanleen artean dagoen lan-indarraren eskaintza ezagutzea du helburu.

Inkesta, Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) Etxebizitzen Direktoriotik hautatutako familia-etxebizitzetara zuzenduta dago. Laginaren diseinua probabilistikoa da, eta hainbat aldagai soziodemografikoren eta enplegu-eskualde edo -aroren arabera geruzatzen da.

Ondoren, etxeetan 16 urtetik gorako kide guztiei buruz galdetzen da. Hautatutako etxebizitzetan bizi diren pertsonak aukeratutako moduan bildu da informazioa, hau da, aurrez aurre, telefonoz edo Internet bidez.

Aurreko edizioetan bezala, 2021ean inkesta urria eta Abendua bitartean egin da, hau da, urteko azken hiruhilekoan. Landa-lana Ikertalde enpresak egin du.

Gazteen Euskal Behatokiak inkestak jasotzen dituen datu batzuk eskatu dizkio Lan eta Enplegu Saileko Estatistika Organo Espezifikoari, gazteek 2021ean lan-merkatuan duten egoera aztertu ahal izateko. Eskatutako datuak Gazteen Euskal Behatokiak aztertu ditu, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoaren laguntzarekin.

Gazteen Euskal Behatokiak egindako txostenean, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen egoera aztertzen da batez ere, eta adin gehiagokoen egoerarekin alderatzen da. Enpleguaren ezaugarriak buruzko atalean, hurrengo bost urteko taldearekin (30-34 urte) alderatzen da, adinak gora egin ahala lan-baldintzak hobetzen diren (ala ez) ikusteko, bai eta 35-64 urteko biztanleria landunarekin ere. Langabeen egoerari buruzko atalean, aldiz, konparazioa 30 eta 64 urte bitarteko biztanleriarekin egiten da, 30 eta 34 urte bitarteko langabeen kolektiboa berariaz bereizi gabe, bost urteko talde horren langabeen lagina oso txikia baita.

Gainera, 16 eta 29 urte bitarteko gazte guztien datuak eta adin horretako gazte landunenak sexuaren, adinaren (25 urtetik gorakoak eta behekoak) eta lurralde historikoaren arabera bereizita aurkezten dira. Gazte langabeen kasuan, desagregazio horiek laginketa-akats handia eragingo lukete, laginean egoera horretan dauden pertsonen kopurua oso txikia baita, eta, beraz, ez dira aurkezten. Azterlan honetako 16 eta 29 urte bitarteko gazteen lagina, guztira, 3.385 pertsonakoa da; horietatik 1.327 okupatuta daude eta 171 langabezia; gainerakoak ikasleak dira.

Analisian, 2021eko gazteen egoeraren eta 2019ko jasoaldian jasotako datuen arteko alderaketa ere sartu da.

1. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA LANARI DAGOKIONEZ


2021ean inkestatutako 16-29 urteko pertsonen % 41,0 okupatuta daude (aurreko astean enplegu bat izan zutela diote).

Gainerako % 59,0ak ez du lanik egiten, baina talde horretan, alde batetik, langabeak daude, hau da, lan egiten ez dutenak, baina lan bila ari direnak; izan ere, lana bi latzeko kudeaketaren bat egin dute aurreko lau asteetan (gazte guztien % 8,0), eta gainerako pertsona ez-okupatuak (% 51,0), batez ere ikasleak, biztanleria ez-aktiboa osatzen dutenak.

Gazte landunen ehunekoa zertxobait handiagoa da 2021ean 2019an baino (% 38,4 zen duela bi urte).

1.1.grafikoa

Euskadiko 16-29 urteko gazteen banaketa, 2019an eta 2021ean izandako okupazioaren arabera (%)




16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen ehunekoak, ordea, oso errealitate desberdinak ezkututzen ditu 25 urtetik beherakoen eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean. Talde horietako lehenengoan, gehienak ikasten ari dira, eta lau pertsonatik batek baino ez du enplegu bat (% 23,9); 25-29 urtekoen taldean, berriz, gehienek ikasketak amaitu dituzte eta lan-merkatuan sartu dira; talde horretan, landunen proportzioa ia lautik hirura iristen da (% 72,7). Ehuneko horiek 2019koak baino zertxobait handiagoak dira.

Adinean aurrera egiten badugu, ikusiko dugu 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 80,8k duela lana, eta 35-64 urte bitartekoen % 75,9k.


2019arekin alderatuta, alderik handiena 25-29 urteko landunen ehunekoaren bost puntuko igoeran datza.

1.2.grafikoa
Landunen ehunekoaren bilakaera, adin-taldeen arabera (%)



Emakume gazteen okupazio-ehunekoa gizon gazteena baino pixka bat txikiagoa da (% 39,3 eta % 42,6, hurrenez hurren, 16 eta 29 urte bitartekoen taldean); lan-merkatuan 25 urtetik beherako gizonen presentzia handiagoa delakogertatzen da hori, 25 eta 29 urte bitartekoen artean zifrak ia berdinak baitira gizonen eta emakumeen artean. 30 eta 34 urte bitartekoen artean, berriz ere, zifrak zertxobait handiagoak dira gizonen artean, 35-64 urtekoen artean bezalaxe.


1.3.grafikoa
16 eta 64 urte bitarteko landunen ehunekoa 2021ean, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



2019tik 2021era, gizon gazte okupatuaren ehunekoak gora egin du, bai 16-24 urtekoen taldean, bai 25-29 urtekoen artean. Emakume gaztearen kasuan, aldiz, okupazio-ehunekoa zertxobait jaitsi da 25-29 urtekoen artean, bai eta 30-34 urtekoen artean ere.

1.4. grafikoa


16 eta 64 urte bitarteko emakume eta gizon landunen ehunekoaren bilakaera, adin-taldearen arabera (%)



Okupazioaren ehunekoak lurralde historikoen arabera aztertuz gero, ikusten da 2021ean handiagoa dela Gipuzkoan eta Araban Bizkaia baino, adin-talde guztietan.

1.5. grafikoa

16 eta 64 urte bitarteko landunen ehunekoa 2021ean, lurralde historikoen eta adin-taldearen arabera (%)



2. GAZTEEN ENPLEGUEN EZAUGARRIAK

Atal honetan, zelakoak diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen enpleguak deskribatuko ditugu, bai eta Euskadiko gainerako populazio okupatuak dituenekin alderatu ere.


2.1. Landunen enplegu kopurua

Lehenik eta behin, argitu behar da gazte gehienek enplegu bakarra dutela, gazte okupatuak % 1,7 baino ez baitu enplegu bat baino gehiago. Enplegu anitzeko pertsonen ehuneko handiagoa da 16-29 urte dituztenen artean adin handiagoko taldeetan baino.

Gainera, enplegu-aniztasuna ohikoagoa da emakumeen artean gizonen artean baino; portzentajezko aldeak txikiak badira ere, joera hori errepikatu egiten da adin-talde guztietan.

2.1. grafikoa

Enplegu bat baino gehiago dituen biztanleria okupatua, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Enplegu bat baino gehiago duten 16 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoak gora egin du 2019tik 2021era (gazte okupatuak % 1,1etik % 1,7ra), baina behera egin du 30 eta 34 urte bitartekoen eta 35 eta 64 urte bitartekoen artean (30 eta 34 urte bitartekoen artean, % 1,9 zen 2019an, eta 35 eta 64 urte bitartekoen artean, % 1,5).

Nolanahi ere, jarraian deskribatzen diren lan-ezaugarri guztiak enplegu bakar horri dagozkio (edo enplegu nagusiari, enplegu-aniztasunaren kasuan).

2.2. Lanbide-egoera eta -kategoria

30 urtetik beherako gazte okupatu gehienak soldatapekoak dira (% 95,0), beste % 3,8k norberaren kontura lan egiten du; gainera, % 0,9 kooperatibista da, eta % 0,3k ordai nsaririk gabeko familia-negozioan laguntzen du (familia-laguntza esaten zaio horri).


Soldatapeko gehiengo horri erreparatuta, ikusten dugu gehienek enpresa pribatuetan egiten dutela lan (% 82,9), nahiz eta hamar gazte okupatutik batek administrazio publikoren batean edo enpresa publikoren batean lan egiten duen (% 12,1).

Bilakaerak erakusten du, 2019. urtearekin alderatuta, norberaren kontura lan egiten dutenen ehunekoa zertxobait jaitsi dela (% 4,6tik % 3,8ra), eta sektore publikoan soldatapeko gisa lan egiten dutenena, berriz, handitu egin dela (% 10,6tik % 12,1era). Nolanahi ere, oso aldaketa txikiak dira, eta horrek erakusten du gazte gehienek enpresa pribatuetan soldatapeko gisa lan egiten dutela.

Bestalde, beste adin-talde batzuekiko alderaketak erakusten du adinak gora egin ahala handitu egiten dela norberaren kontura lan egiten duten landunen ehunekoa, bai eta kooperatibista gisa lan egiten dutenena ere. Administrazio publikoan edo enpresa publikoetan lan egiten duten soldatapekoen ehunekoa zertxobait handiagoa da 30 urtetik gorakoen artean adin horretara iristen ez direnen artean baino.

2.2.grafikoa

Biztanleria okupatuaren lanbide-egoera 2021ean, adin-taldean arabera (%)



Ikusi dugunez, 30 urtetik beherakoen artean, lanbide-egoera nagusia enpresa pribatu batean soldatapekoa izatea da, nahiz eta sexuaren, adinaren edo bizi diren lurralde historikoaren arabera aldeak dauden:

- Emakumeek gehiago egiten dute lan administrazio publikoan edo enpresa publikoetan gizon gazteek baino.
- 16 eta 24 urte bitarteko pertsonak dira enpresa pribatuetan soldatapeko lanaren ehuneko handienak dituztenak eta, aldiz, norberaren konturako lanaren ehuneko txikienak dituztenak.
- Lurralde historikoen arabera, norberaren konturako lanaren eta kooperatibisten kopururik handienak Gipuzkoan daude; Bizkaian, bestalde, sektore pribatuan lan egiten duten gazteen ehuneko handienak.

2.1. taula

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren lanbide-egoera 2021ean, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)


(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Enpresa pribatuetako soldatapekoak	82,9	79,8	85,5	89,1	79,1	81,8	86,4	79,0
Administrazioko edo enpresa publikoetako soldatapekoak	12,1	15,5	9,3	7,5	15,0	13,6	9,9	14,3
Kooperatibetako kideak	0,9	0,9	0,9	0,3	1,3	0,8	0,4	1,6
Norberaren konturako langileak edo enpresariak	3,8	3,6	3,9	2,4	4,6	3,5	3,2	4,6
Senideei laguntzen dutenak	0,3	0,2	0,4	0,6	0,1	0,3	0,2	0,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Lanbide-egoera edozein dela ere, lanbide-kategoriari erreparatuz gero, ikusten dugu zuzendaritza-postuak betetzen dituztenen ehunekoa % 2,1 dela 16 eta 29 urte bitartekoen taldean, eta ehuneko hori handitu egiten dela adinean aurrera egin ahala; hala, 30-34 urte bitartekoen % 4,0 eta 35-64 urte bitartekoen taldean % 8,1 dira.

Eta gazteen artean sexuaren arabera alde nabarmenik ez badago ere, adinak gora egin ahala ikusten da gizonen zuzendaritza-postu gehiago betetzen dituztela emakumeek baino (35-64 urteko gizonen % 10,2, eta adin horretako emakumeen % 5,8).

2.3.grafikoa


Zuzendaritza-karguak betetzen duen biztanleria okupatua, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



Sexuen arteko aldea are nabarmenagoa da kualifikatu gabeko lanak egiten dituzten pertsonen ehunekoei erreparatuz gero: 30 urtetik beherako emakume okupatuen %8,1ek eta gizon gazte okupatuen %9,7k kualifikaziorik eskatzen ez duten lanak egiten dituzte, baina, gizonen kasuan, ehuneko horiek jaitsi egiten dira adinean gora egin ahala, eta emakumeen kasuan, aldiz, igo egiten dira.

2.4.grafikoa

Kualifikatu gabeko lanak betetzen dituen biztanleria okupatua, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



Kualifikaziorik gabeko enplegetan lan egiten duten 30 urtetik beherako pertsonen guztizko ehunekoa antzekoa da 2021ean (%8,9) eta 2019an (%9,3).

2.3. Lan egiten duten enpresaren edo erakundearen jarduera-sektorea


Hamar gazte okupatutik ia zortzik zerbitzuen sektorean egiten dute lan (% 78,8, bi urte lehenago baino zertxobait gehiago, 2019an % 74,7 baitziren). Oro har, biztanle gehienek sektore horretan egiten dute lan, baina, hala ere, gazteak dira ehunekorik handiena dutenak.

Aitzitik, 16 eta 29 urte bitartekoek osatzen dute industrian okupazio-ehuneko txikiena duen adin-taldea (% 17,2), eta ehuneko hori apur bat jaitsi da 2019arekiko alderatuta (orduan % 20,6 baitziren industrian okupatutako gazteak).

Eraikuntzan (% 3,2) edo nekazaritzan eta arrantzan (% 0,8) okupatutako gazteen ehunekoak are txikiagoak dira, eta ez dira ia aldatu aurreko neurketarekin alderatuta.

2.5.grafikoa

Biztanleria okupatuak lan egiten duen jarduera-sektorea 2021ean, adin-taldean arabera (%)



Kasu horretan, emakume eta gizon gazteen arteko aldeak nabarmenak dira; izan ere, zerbitzu-sektorean lan egiten duten emakumeen ehunekoa askoz ere handiagoa da (emakumeen % 90,9 eta gizonen % 68,4), eta industrian, eraikuntzan edo nekazaritzan eta arrantzan duten presentzia gizon gazteena baino dezente txikiagoa da.

Bizileku-lurraldeak ere aldeak erakusten ditu. Bizkaian, gazteek zerbitzuen sektorean duten pisua (% 83,3) batez bestekoa baino handiagoa da; bestetik, Gipuzkoan aurkitzen dugu industrian lan egiten duten gazteen ehunekorik handiena (% 22,4).

Azkenik, zifrak txikiak badira ere, ikusten dugu 25-29 urteko taldean eraikuntzan lan egiten dutenen ehunekoa 16 eta 24 urte bitarteko taldean baino handiagoa dela (% 4,0 eta % 1,9, hurrenez hurren), baina sektore horretan 25-29 urteko gizonen presentzia handiagoa delako gertatzen da hori (% 7,3), eraikuntzan emakumeen presentzia ia ez delako existitzen adin horretan (% 0,3).

2.2.taula

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak lan egiten duten enpresen edo erakundeen jardura-sektorea 2021ean, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Nekazaritza eta arrantza	0,8	0,1	1,4	0,6	0,9	1,0	0,4	1,1
Industria	17,2	8,8	24,5	18,2	16,7	18,6	12,6	22,4
Eraikuntza	3,2	0,2	5,8	1,9	4,0	3,0	3,6	2,8
Zerbitzuak	78,8	90,9	68,4	79,3	78,4	77,4	83,3	73,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100


2.4. Kontratu mota eta enplegu horretan duten antzintasuna

30 urtetik beherako hamar pertsona okupatutik zazpik diote bi urte baino gutxiago daramatzatela beren enpleguan (% 72,8, 2019an erregistratutako % 71,7aren antzeko ehunekoa), eta % 22,2k bi eta lau urte bitartean daramatza. % 5,0k soilik daramatza bost urte edo gehiago egungo enpleguan.

Adinak gora egin ahala, enpleguan daramaten antzintasunak ere gora egiten du, eta egungo enpleguan bi urte baino gutxiago daramatenak gutxiengo bihurtzen dira argi eta garbi. Aitzitik, egungo enpleguan bost urte edo gehiago daramatenen ehunekoa % 32,4ra iristen da 30 eta 34 urte bitartekoen artean, eta % 71,6ra igotzen da 35 eta 64 urte bitarteko okupatuen artean.

2.6. grafikoa

Biztanleria okupatuak egungo enpleguan duen antzintasuna, adin-taldean arabera (%)



Logikoaenez, enpleguko antzintasuna handiagoa da 25 eta 29 urte bitartekoen artean 25 urtetik beherakoen artean baino.

Gainera, Gipuzkoako gazteek batez bestekoak baino antzintasun handiagoa dute enpleguan; Bizkaiko gazteek, berriz, egungo enpleguan bi urte baino gutxiago daramatenen kopururik handiena dute.

Azkenik, gizon gazteek emakumeek baino antzintasun handixeagoa dute, egungo enpleguan bi urte baino gehiago daramatenen ehunekoak kontuan hartuta.

2.3. taula

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak egungo enpleguan duten antzintasuna, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2 urte baino gutxiago	72,8	74,7	71,2	89,4	62,8	71,6	77,2	68,0
2 eta 4 urte artean	22,2	21,0	23,2	10,3	29,4	23,2	19,1	25,5
5 urte edo gehiago	5,0	4,3	5,6	0,3	7,9	5,3	3,7	6,5
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100


Enpleguko antzintasuna oso lotuta dago adinarekin, baina baita kontratu motarekin ere.

16-29 urteko soldatapeko gazte gehienek kontratua dute; soilik % 2,4k dio kontraturik gabe lan egiten duela, baina ehuneko hori bikoiztu egiten da eta % 5etik gorakoa da 16-24 urteko gazteen kasuan, bai adin horretako emakumeen kasuan, bai gizonen kasuan.

Eta kontratu bat dutenen artean, gehiago dira aldi baterako kontratua dutenak (% 53,0) kontratu mugagabea dutenak baino (% 44,5). Zifra horiek 2019an erregistratutakoen ia berdinak dira.


2.7. grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen banaketa, 2021ean duten kontratu motaren arabera (%)



25 urtetik beherako soldatapeko hiru pertsonatik bik aldi baterako kontratua dute, gazteen batez bestekoaren gainetik. Kontratu mugagabeen pisua, ordea, handitu egiten da adinean aurrera egin ahala, eta 25-29 urteko taldean nagusi izatera iristen da.

2.8.grafikoa
Soldatapeko langileen kontratu mota 2021ean, adin-taldeen arabera (%)



Bizkaiko 30 urtetik beherako gazteek dituzte zifrarik onenak kontratu mugagabeei dagokienez, eta Arabako soldatapeko gazteek jasaten dute ezegonkortasun handiena lanean.


Emakume gazteek ere aldi baterako kontratazioaren ehuneko handiagoak dituzte gizon gazteek baino.

2.4. taula
16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen kontratu mota 2021ean, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Aldi baterakoa	53,0	56,8	49,8	67,1	44,3	59,6	48,0	56,3
Mugagabea	44,5	40,3	48,2	27,8	55,0	39,2	48,6	42,0
Kontraturik gabea	2,4	2,9	2,0	5,1	0,8	1,2	3,4	1,7
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

Soldatapeko gazteekin jarraituz, % 97,6k Gizarte Segurantzari kotizatzen diela dio (2019ko % 98,2ren oso antzeko ehunekoa).

2.9.grafikoa
16 eta 29 urte bitarteko soldatapeko gazteen banaketa, 2021ean Gizarte Segurantzari kotizatzearen arabera (%)



Ez da alde nabarmenik ikusten sexuaren edo lurralde historikoaren arabera, baina 25 urtetik beherako soldatapeko gazteen artean Gizarte Segurantzari kotizatzen dutenen ehunekoa (% 94,9) 25-29 urtekoen artean erregistratutakoa (% 99,2) baino pixka bat txikiagoa da.

30 urtetik gorako kolektiboetan, Gizarte Segurantzari kotizazio-ehunekoak % 99tik gorakoak dira.


2.5. Asteko lanorduak

Laneko aste arrunt batean lan egindako ordu kopuruari erreparatuz gero, ikusten da 16 eta 29 urte bitarteko gazte landunen laurik batek (% 25,8k) adierazi duela astean gehienez 30 orduz lan egiten duela (2019. urteko ehunekobera). Beste % 16,9k astean 30 eta 39 ordu bitartean egiten du lan. Eta gehienek, % 54,4k, 40 ordu lan egiten du astean. Gainerako % 3,0ak astean 40 ordu baino gehiago lan egiten ditu.

Adinak gora egin ahala, behera egiten du astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten dutenen ehunekoak.

2.10.grafikoa

Biztanleria okupatuaren asteko lanorduak 2021ean, adin-taldeen arabera (%)



Gazteen artean, 25 eta 29 urte bitartekoen egoera, asteko lanorduei dagokienez, 30 eta 34 urte bitartekoen taldearenaren antzekoagoa da, 16 eta 24 urte bitartekoen taldearenaren aldean. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko landunen % 40,6k 30 ordu baino gutxiago egiten du lan astean, eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean, berriz, ehuneko hori % 16,8ra jaisten da.

Emakume gazteen artean, % 31,2k 30 ordu baino gutxiago egiten du lan astean, gizon gazteen batez bestekoa (% 21,1) baino hamar puntu gehiago.

2.5.taula

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren asteko lanorduak 2021ean, sexuaren eta adinaren arabera (%)


(%)	Guztira	Sexua		Adina	
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte
30 ordu baino gutxiago	25,8	31,2	21,1	40,6	16,8
30 eta 39 ordu artean	16,9	22,4	12,1	15,0	17,9
40 ordu	54,4	44,2	63,2	43,5	61,0
40 ordu baino gehiago	3,0	2,2	3,6	0,8	4,3
Guztira	100	100	100	100	100

Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean, bostetik batek bakarrik (% 19,3) adierazi du borondatez lan egiten duela ordu kopuru hori; gehienek adierazi dute enpresaren eskakizuna dela (% 80,7).

2019tik 2021era, gora egin du, norberak aukeratuta, astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten gazte landunen ehunekoak (% 13,8tik % 19,3ra).

2.11.grafikoa

Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen lanaldi murriztua borondatezkoa izatea 2021ean (%)



Adinak gora egin ahala, norberak aukeratuta astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten pertsonen ehunekoa ere handitu egiten da (nahiz eta ehuneko hori gutxiengoa izan adin-talde guztietan): lanaldi murriztua duten 30-34 urteko landunen % 25,4k eta 30 orduetik beherako lanaldia duten 35-64 urteko landunen % 32,5ek.

Lanaldi murriztua duten gizon eta emakume gazteen artean ez dago alde aipagarririk lanaldi hori borondatezkoa izateari dagokionez.

Biztanleria landun osoaren arabera kalkulua egiten badugu, ikusiko dugu 16 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 5,0k baino ez duela lan egiten astean 30 ordu baino gutxiago berak horrela aukeratu duelako.

Astean 30 ordu baino gutxiagoko lanaldia borondatez duten 16 eta 29 urte bitarteko pertsona gehienek nahiago dute lanaldi hori lana eta ikasketak uztartu ahal izateko (zehazki, borondatezko lanaldi murriztua dutenen % 71,3k).


2.6. Lanean ari direnen lana ikasketekin lotuta izatea

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatu gehienek unibertsitate-ikasketak edo lanbide-heziketako ikasketak dituzte (% 76,3). Pentsa daitekeenez, ikasketa horiek egin dituzten gazteen ehuneko handiagoa da 25-29 urtekoen taldean (% 82,0) 16-24 urtekoen taldean baino (% 66,9). Ikasketa profesionalak edo unibertsitate-ikasketak egin dituztenen ehunekoak handiagoak dira emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino (% 79,9 eta % 73,2, hurrenez hurren).

Unibertsitateko ikasketak edo ikasketa profesionalak dituzten pertsona horien artean, hamarretik zazpi (% 70,5) adierazi dute ikasketetan ikasitakoa lanean erabiltzen dutela. Zifra hori 2019an erregistratutakoaren antzekoa da (% 73,1).

2.12.grafikoa

Lanean bere prestakuntzan ikasitakoa erabiltzen duen unibertsitateko edo lanbide ikasketak dituen biztalaria okupatuaren ehunekoa, adin-taldean arabera (%)



Lanbide- edo unibertsitate-ikasketak dituzten eta ikasketetan ikasitakoa lanean erabiltzen duten landunen ehunekoak (ikasketei lotutako lana dei dakiokena) ez du alde handirik sexuaren edo adinaren arabera, baina bai lurralde historikoaren arabera: handiagoa da Bizkaian (% 73,5) eta txikiagoa Araban (% 63,3).

2.6.taula

Lanbide- edo unibertsitate-ikasketak dituzten eta lanean bere prestakuntzan ikasitakoa erabiltzen duten 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	Guztira	Sexua		Adina		Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	16-24 urte	25-29 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai	70,5	71,0	70,1	68,8	71,4	63,3	73,5	69,9
Ez	29,5	29,0	29,9	31,2	28,6	36,7	26,5	30,1
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100

2.7. Hileko sarrera gordinak


Kontsultatuak izan aurreko hilabetean, 16 eta 29 urte bitarteko pertsona okupatuak jaso dituzten diru-sarrera garbiak 1.253 eurokoak izan dira 2021ean, batez beste; kopuru hori 2019an okupatutako gazteek jasotzen zutenaren antzekoa da (1.267 euro, batez beste)¹.

Batez besteko diru-sarrera horiek adin handiagoko taldeenak baino txikiagoak dira; izan ere, batez besteko diru-sarrera zenbatetsiak handitu egiten dira adinak gora egin ahala.

Emakume gazteek, batez beste, diru-sarrera garbi txikiagoak dituzte gizon gazteek baino. Gizonen eta emakumeen arteko soldata-aldeak adin-talde guztietan egiaztatzeaz gain, soldata-arraila handitu egiten da adinarekin batera.

2.13.grafikoa

Biztanleria okupatuaren hileko sarrera garbi zenbatetsiak 2021ean, sexuaren eta adin-taldeen arabera (euroak)



Gazteen adinak gora egin ahala, jasotzen duten batez besteko soldatak ere gora egiten du; hala, 25 eta 29 urte bitartekoek adierazten dute aurreko hilean, batez beste, 1.373 euro garbi kobratu zituztela, eta 16 eta 24 urte bitartekoen artean, berriz, galdetu aurreko hileko soldata txikiagoa izan zen: 1.056 euro garbi, batez beste.

Ez da alde nabarmenik ikusten lurralde historikoetako gazteen artean.


¹ Hileko diru-sarrera zenbatetsiak dira, pertsona batzuek ez baitute zifra zehatza ematen, tarte bat baizik, eta, gainera, aparteko ordainsarien hainbanaketarik gabe.

2.8. Beste lan bat bilatzea

Lanean ari diren gazteen % 7,4 beste lan baten bila ari da, batez ere gaur egungo enpleguari eutsi ahal izateko segurtasunik ezagatik edo bere prestakuntzari hobeto egokitzen zaion lana aurkitzeagatik. Ehuneko hori 2019koaren antzekoa da (% 8,1).

2.14.grafikoa

Beste lan bat bilatzen ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuak 2021ean (%)



Adinak gora egin ahala, behera egiten du beste lan bat bilatzen ari diren landunen ehunekoak: 30 eta 34 urte bitartekoen % 6,5 eta 35 eta 64 urte bitartekoen % 3,2.

16-29 urteko adin-taldean, aldiz, ez dago alderik lana bilatzen ari diren 16-24 urteko landunen ehunekoaren (% 7,4) eta 25-29 urtekoen ehunekoaren (% 7,3) artean. Lurralde historikoetako gazteen arteko aldeak ere ez dira esanguratsuak. Hala ere, sexuaren arabera, beste lan bat bilatzen ari diren 30 urtetik beherako emakume landunen ehunekoa zertxobait handiagoa da beste lan bat bilatzen ari diren adin-talde bereko gizonena baino (% 9,4 eta % 5,6, hurrenez hurren).

Nolanahi ere, inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egin duten gazte landunen ehunekoari erreparatuz gero, ehuneko orokorra % 7,4tik % 4,5era jaisten dela ikusiko dugu.


3. 16 ETA 29 URTE BITARTEKO LANGABEEN EGOERA

Lehen atalean ikusi dugun bezala, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 8,0 lanik gabe dago. Ehuneko hori 2019koa (% 9,5) baino pixka bat txikiagoa da.

Langabeen proportzioa zertxobait txikiagoa da 30 eta 64 urte bitartekoen artean (% 7,4); beraz, ez dago alde handirik bi adin-taldeen artean.

Sexuaren arabera aldea ere urriak dira. Nabarmenena da 30-64 urteko gizon langabeen ehunekoa adin horretako emakume langabeena baino pixka bat handiagoa dela, gazteen artean ez bezala, baina 30 urtetik aurrera lanik ez duten baina langabe gisa zenbatzen ez diren emakume ez-aktiboaren ehunekoa gizon ez-aktiboena baino nabarmen handiagoa da (% 34,2 eta % 12,4, hurrenez hurren)

3.1.grafikoa
Langabezian dagoen biztanleria 2021ean, sexuaren eta adin-taldeen arabera (%)



Bestalde, gazte langabeen ehuneko handiena Araban dago, lurralde horretan 16 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren % 9,5 langabezian baitago. Aitzitik, gazte langabeen ehuneko txikiena Gipuzkoari dagokio (% 6,5)², eta Bizkaia tarteko posizioan dago (% 8,6).

Zehaztu behar da ez garela ari langabezia-tasez (horiek biztanleria aktiboaren arabera kalkulatu dira), baizik eta langabeen ehunekoez, adin-talde bakoitzeko pertsona guztiekiko³.

² Gogoratu behar da Gipuzkoan jasotzen dela lana duten gazteen ehunekorik altuena (1. atala ikusi).

³ Inkesta honetako datuetatik abiatuta, langabezia-tasa kalkulatu badugu (hau da, biztanleria aktiboaren arabera), ikusten dugu tasa hori handiagoa dela 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (% 16,4) 30 eta 64 urte bitartekoen artean baino (% 8,9); baina adin-talde bakoitzeko pertsona guztien gainean egindako kalkuluan, aldiz, ez dago alderik langabeen ehunekoan.

3.1. Aurretiko lan-esperientzia izatea eta prestazio ekonomikoren bat jasotzea


30 urtetik beherako langabeen % 77,1ek lehenago lan egin izan du; hala ere, gutxi dira (% 19,7) langabezia-prestazioa edo bestelako gizarte-laguntzaren bat kobratzen ari direnak, hala nola Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE).

Datu horiek 2019an erregistratutakoekin alderatuz gero, ikusten da lan-esperientziaren bat duten 16 eta 29 urte bitarteko langabeen ehunekoak ez dela ia aldatu (orduan % 77,9 zen), baina pixka bat igo da prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutenena, 2019ko % 16,4tik 2021eko % 19,7ra.

Bestalde, datu horiek 30 eta 64 urte bitarteko langabeen datuekin alderatzean, nabarmentzekoa da azken kolektibo horretangehien-gehienek (% 96,3k, zehazki) adierazi dutela aurretik lan egin dutela, eta erdiek (% 50,8k) adierazi dute prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutela (16 eta 29 urte bitarteko taldean, berriz, bost langabetik batek).

3.2.grafikoa

Aurretiko lan-esperientzia duten langabeak eta 2021ean prestazio ekonomikoren bat jasotzen duten langabeak, adin-taldeen arabera (%)




3.2. Lana bilatzeko bideak

30 urtetik beherako langabeen % 78,9k enplegu-eskatzaille gisa izena eman dute Lanbiden. Ehuneko hori txikiagoa da 30 eta 64 urte bitarteko langabeen kolektiboan erregistratutakoa baino, azken horien % 93,3 enplegu-zerbitzu publikoan inskribatuta baitago.

Lanbiden izena emandako gazte langabeen ehunekoak behera egin du 2019. urtearekiko, orduan % 83,4koa baitzen. 35-64 urteko langabeen artean, berriz, zertxobait igo da.

3.3.grafikoa
Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena eman duten langabeen ehunekoaren bilakaera, adin-taldean arabera (%)



Nolanahi ere, 16 eta 29 urte bitarteko langabeek galdetuak izan aurreko lau asteetan lana aurkitzeko gehien erabiltzen dituzten metodoak aztertzen baditugu, ikusiko dugu enplegu-atariak erabiltzea (% 82,0) eta senideei eta lagunei galdetzea (% 77,7) direla ohikoenak.

Gainera, % 63,2 enpresaburuekin harremanetan jarri da, % 59,4k sare sozialen bidez bilatu du lana eta % 56,8k enplegu-bulego publikoetara jo du.


Erdiak baino gutxiago dira enplegu-bulego pribatuetara, aldi baterako laneko enpresetara edo ABLEetara jo dutenak (% 40,7), bai eta erakunde publikoetako edo enpresa pribatuetako lan-poltsetan izena eman dutenak ere (% 24,1).

Komunikabideetan edo leku publikoetan jarritako lan-eskaintzei erantzun dietenak edo iragarriak jarri dituztenak gutxiengoa dira, argi eta garbi.

2019tik 2021era % 88,9tik % 77,7ra jaitsi da senideei edo lagunei kontsulta egin dietela dioten gazteen ehunekoa, eta, beraz, lana bilatzeko metodo informal hori gazteek gehien erabiltzen zutena izatetik bigarren postura jaitsi da. Enplegu-atarien erabilera, aldiz, ia berdin mantendu da (% 81,4, 2019an eta % 82,0, 2021ean), baina orain gazteek lana bilatzeko duten baliabide nagusia dela esan dezakegu.

3.4.grafikoa

Aurreko lau asteetan 16 eta 29 urte bitarteko langabeek lana bilatzeko gehien erabili dituzten bideak, 2021ean (%)



Bestalde, lana bilatzeko orduan, 30 urtetik beherako eta gorako langabeen artean alde handienak honako hauek dira: gazteek gehiago erabiltzen dituzte enplegu-atariak eta sare sozialak, gehiago jartzen dira harremanetan enpresaburuekin, eta, aldiz, gutxiago jotzen dute enplegu-bulego publikoetara eta leku publikoetan iragarkiak jartzera.

3.1.taula

Langabeek lana bilatzeko gehien erabiltzen dituzten bideak 2021ean, adin-taldean arabera (%)


(aukera bakoitzean baiezko erantzunen %)	16-29 urte	30-64 urte
Enplegu-atari orokorrak edo arloetan espezializatutakoak erabili ditu (Infojobs, Infoempleo, ciberconta, portalparados, paradopolis...)	82,0	73,3
Senideekin, lagunekin eta abarrekin hitz egin du	77,7	78,4
Enpresariekin harremanetan jarri da	63,2	49,8
Sare sozialak erabili ditu (LinkedIn, Facebook, Twitter...)	59,4	38,0
Enplegu-bulego publikoekin harremanetan jarri da (Lanbiderekin, SEPErekin, udal zerbitzuekin...)	56,8	63,9
Enplegu-bulego pribatu batekin edo ABLE batekin harremanetan jarri da edo izena eman du	40,7	36,4
Erakunde publiko edo enpresa pribatu bateko lan-poltsan izena eman du	24,1	24,4
Kontratatzeko azterketa edo elkarrizketa egin du	19,9	13,7
Enplegu-bulego publiko edo pribatu bateko deiaren zain dago	15,1	17,2
Prentsako, irratiko edo TBko enplegu-eskaintzak irakurri eta entzun ditu	14,6	16,7
Egindako eskarien edo oposizioen erantzunaren zain dago	13,9	10,0
Prentsako, irratiko edo TBko iragarkiei erantzun die	11,8	10,5
Iragarkiak jarri ditu leku publikoetan, kalean, etab.	1,5	5,9
Beraren kontura jartzeko lurzoruak, lokalak, makinak, finantzazioa eta abar bilatu ditu	0,5	1,9

3.3. Lana bilatzen emandako denbora

30 urtetik beherako hiru langabetik batek urtebete edo gehiago darama lan bila (% 35,8). Zifra hori 2019koa (% 41,6) baino txikiagoa da.


Lan bila hiru hilabete baino gutxiago daramaten gazte langabeen ehunekoak ere behera egindu, eta lan bila hiru eta hamabi hilabete bitartean daramatenenak, berriz, gora.

3.5.grafikoa
16 eta 29 urte bitarteko langabeek lana bilatzen daramaten denboraren bilakaera (%)



Gainera, 2021ean lan bila urtebete baino gehiago daramatela dioten 16 eta 29 urte bitarteko gazte langabeen kopurua txikiagoa da 30 eta 64 urte bitarteko langabeen taldean erregistratutakoa baino, azken horien artean % 56,8 baita.

3.6.grafikoa
Langabeek lan bila daramaten denbora 2021ean, adin-taldeen arabera (%)




3.4. Lana bilatzen den eremua eta lanagatik bizilekua aldatzeko prestasuna

Lan bila ari diren gazte langabe gehienek (% 79,7) ez dute beren lurralde historikotik irten nahi; hala, % 32,8k beren udalerrian bakarrik bilatzen dute lana, eta % 46,9k bizi diren lurralde historiko osoan.

Kontrako muturrean, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte langabeen % 7,0k Euskaditik kanpo ere bilatzen du lana; zehazki, % 3,8k Espainiako estatu osoan bilatzen du, eta % 3,2k atzerrian ere bai.


2019tik 2021era murriztu egin da beren udalerrian soilik lan bila ari diren gazteen ehunekoak.

3.7.grafikoa
16 eta 29 urte bitarteko langabeek lana bilatzeko eremuaren bilakaera (%)




30 urte eta gehiagoko langabeen artean, gehienek beren lurralde historikoan ere bilatzen dute lana, eta ez haratago.

3.8.grafikoa
Langabeek lana bilatzeko eremua 2021ean, adin-taldean arabera (%)



Bestalde, nahiz eta, ikusi dugun bezala, 30 urtetik beherako langabe gehienak beren lurralde historikoan soilik ari diren lan bila, % 44,3k aitortzen du bizilekuz aldatzea ekarriko lukeen lan bat onartuko lukeela, eta ehuneko horrek, gainera, gora egin du 2019an jasotarekin alderatuta, orduan % 36,0koa baitzen.


3.9.grafikoa
Bizilekuz aldatzea ekarriko lukeen lan bat onartuko luketen 16 eta 29 urte bitarteko langabeen bilakera (%)



30 eta 64 urte bitarteko langabeen taldean, lana dela-eta bizilekua aldatzeko prest daudenen ehuneko erdira jaitsi da (% 21,7).

3.10.grafikoa

Bizilekuz aldatzea ekarriko lukeen lan bat onartuko luketen langabeak 2021ean, adin-taldean arabera (%)




3.5. Nahiago den lanaldi mota eta lanaldi partzialeko lanak hartzeko prestasuna

30 urtetik beherako gazte langabe gehienek lanaldi osoko zein lanaldi partzialeko lanak bilatzen dituzte (zehazki, % 59,3k). Eta lanaldi-mota bakar baten alde egiten dutenen artean, gehiago dira lanaldi osoko lanak soilik nahi dituztenak (% 28,1), lanaldi partzialeko lanak soilik nahi dituztenak baino (% 12,7), bai asteen 30 ordu baino gutxiagoko lanak (% 10,0), bai asteen 15 ordu baino gutxiagoko lanak, lanaldi oso murriztutat hartzen dena (% 2,7).

Zifra horiek 16 eta 29 urte bitarteko langabeen artean 2019an erregistratutakoen oso antzekoak dira.


3.11.grafikoa

16 eta 29 urte bitarteko langabeek nahiago duten lanaldi motaren bilakaera (%)




Ez dago alde handirik 30 eta 64 urte bitarteko langabeekin alderatuta, nahiz eta azken horiek gazteek baino zertxobait gutxiago nahi dituzten lanaldi partzialak edo oso murriztuak.

3.12.grafikoa
Langabeek nahiago duten lanaldi mota 2021ean, adin-taldeen arabera (%)



Nolanahi ere, astean 30 ordu baino gutxiagoko lana onartuko luketen galdetzean, 30 urtetik beherako gazte langabeen % 89,5ek dio lanaldi partzialeko lana onartuko lukeela, eta ehuneko hori 2019an erregistratutakoa (% 85,6) baino handixeagoa da. 30 eta 64 urte bitarteko langabeen ehunekoa ere antzekoa da. Horren arabera, esan dezakegu langabe askok lanaldi osoan lan egin nahi badute ere, lan-merkatuak ez duela lanaldi partzialeko lan-eskaintzei uko egiteko adina aukera eskaintzen.

3.13.grafikoa
Lanaldi partzialeko lana onartuko luketen langabeak 2021ean, adin-taldeen arabera (%)




3.6. Kategoria jaistea edo diru-sarrerak murriztea dakartzaten lanak onartzeko prestasuna

Era berean, langabeei galdetu zaie ea espero zena baino kategoria baxuagoa duen lan bat onartuko luketen edo dituzten kualifikazioari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak jasotzea lekarkeen lana onartuko luketen.

30 urtetik beherako langabe gehienek espero baino kategoria baxuagoko lana onartuko lukete (% 85,6), bai eta duten kualifikazioari dagozkion diru-sarrerak baino txikiagoak dituen bat ere (% 84,2). Bi ehunekoak igo egin dira 2019aren aldean.

3.14.grafikoa


Kategoria baxuagoko edo diru-sarrera txikiagoko lana onartuko luketen 16 eta 29 urte bitarteko langabeen bilakaera (%)



30 urteko eta gehiagoko langabeekin alderatuz gero, lanbide-kategoria jaistea dakarten lanak onartzeko prestasuna antzekoa da bi adin-taldeetan, baina diru-sarrerak jaisteko prestasuna zertxobait handiagoa da gazteen artean 30 eta 64 urte bitartekoen artean baino.

3.15.grafikoa

Kategoria baxuagoko edo diru-sarrera txikiagoko lana onartuko luketen langabeak 2021ean, adin-taldean araberaren (%)



3.7. Lana aurkitzeko oztopoak


2021eko Lan Merkatuaren Erroldaren inkestan lana aurkitzeko oztopoei buruz ere galdetzen da, enplegu-eskatzailerako bakoitzaren kualifikazioa, lanbide-erperientzia, familia-egoera, adina eta abar kontuan hartuta.

Horretarako, hamar alderdiren zerrenda aurkezten da (ikasketa-maila, hizkuntza-maila, lan-erperientzia, soldata-nahiak, mugigarritasun geografikorako ezintasuna, familia-kargak izatea, jatorrizko herrialdea, sexua, adina eta muga fisikoa), eta inkestatutako pertsona bakoitzari eskatzen zaio bere egoera pertsonalean garrantzitsuenak diren hiru alderdiak zehazteko.

16 eta 29 urte bitarteko langabeek bereziki nabarmentzen dute lan-erperientziarik eza (% 52,6) eta, bigarren tokian, beren ikasketa-maila (% 33,5). Adina izango litzateke hirugarren oztopoa, eta hizkuntzak laugarrena, baina ehuneko askoz txikiagoekin (adina 16 eta 29 urte bitarteko langabeen % 8,8k aipatu du, eta hizkuntzak, berriz, % 7,6k).

Gazteek neurri handiagotan erantzundute galdera horri 2021ean 2019an baino (gogoratu behar da hiru erantzun ere eman zitezkeela), eta, beraz, ehuneko askok gora egin dute, nahiz eta aipamenen rankinga ia berdina mantendu den: lan-erperientziarik eza eta ikasketa-maila dira bi oztopo nabarmenenak bi neurketetan.

3.16.grafikoa
Lana aurkitzeko oztopoen artean 16 eta 29 urte bitarteko langabeen iritziz garrantzitsuenak direnen ehunekoen bilakaera (%)



Bestalde, 30 urtetik beherako gazte langabeen eta adin handiagoko langabeen arteko alderaketak erakusten digu 30 eta 64 urte bitarteko pertsonak gazteek baino askoz gutxiago aipatzen dutela lan-esperientziarik eza. Izan ere, 30 eta 64 urte bitarteko langabeen artean, lan-esperientziarik eza laugarren postuan dago aipamenean sailkapenean, eta, haien ustez, lana aurkitzeko lehen oztopoa adina da, kolektiboaren ia erdiak aipatzen baitu (% 40,7). 30 urtetik gorako langabeek gehien aipatzen duten bigarren oztopoa ikasketa-maila da (% 24,6, baina gazteek baino gutxiago aipatu dute), eta hirugarren oztopoa hizkuntzak dira (% 17,4, gazteen artean erregistratutako ehunekoa baino hamar puntu altuagoa). 30 urteko eta gehiagoko langabeek familia-kargak ere gehiago aipatu dituzte 30 urtetik beherakoek baino.

3.2.taula

Langabeek lana aurkitzeko dituzten oztopo nagusiak 2021ean, adin-taldean arabera (%)

<i>(oztopo bakoitza aipatu dutenen %)</i>	16-29 urte	30-64 urte
Lan-esperientzia	52,6	17,0
Ikasketa-maila	33,5	24,6
Adina	8,8	40,7
Hizkuntza-maila	7,6	17,4
Mugigarritasun geografikoa izateko ezintasuna	6,0	8,2
Soldata-asmoak	4,6	3,0
Familia-kargak	4,2	11,1
Jatorria	2,1	4,6
Muga fisikoak	1,4	6,8
Sexua	0,0	1,7

4. EMAITZA AIPAGARRIENAK

2019tik 2021era ez da aldaketa nabarmenik izan gazteen banaketan, enpleguari dagokionez: 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean lanean ari direnen ehunekoa zertxobait igo da, eta langabezia daudenena, berriz, ehuneko puntu bat baino gehixeago jaitsi da.

4.1. Lanean ari diren gazteen egoera

Lan egiten duten gazteen artean, enpresa pribatuetako soldatapekoen ehunekoa oso antzekoa da 2019an eta 2021ean, eta norberaren kontura lan egiten dutenena pixka bat jaitsi da. Gehienek zerbitzuen sektorean egiten dute lan, 2021ean 2019an baino pertsona batzuk gehiagok.

Lanean ari diren gazteen erdiak baino gehiagok aldi baterako kontratua dute, eta zifra ez da aldatu 2019. urtearekiko. Era berean, ez dago alde nabarmenik enpresan bi urtetik beherako antzintasuna duten edo astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten gazteen bolumenean. Hileko batez besteko soldata garbia 14 euro jaitsi da, eta oso gutxi dira, bai 2019an, bai 2021ean, enpresan zuzendaritza-karguak betetzen dituzten gazteak.

4.1.taula

16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuaren lan-egoeraren bilakaera eta 30 eta 64 urte bitarteko biztanleria okupatuarekiko alderaketa 2021ean (%)

<i>(Talde bakoitzean ezaugarri hori betetzen dutenen %)</i>	Bilakaera		Alderaketa	
	16-29 urte 2019	16-29 urte 2021	30-34 urte 2021	35-64 urte 2021
Lanean ari da	38,4	41,0	80,8	75,9
<i>Lan egiten dutenen artean</i>				
Enpresa pribatu bateko soldatapekoa da	83,0	82,9	71,6	64,0
Bere kontura lan egiten du	4,6	3,8	9,3	15,5
Zerbitzuetako arloan lan egiten du	74,7	78,8	75,9	72,5
Aldi baterako kontratua du	53,8	53,0	33,4	16,8
2 urtetik beherako antzintasuna du enpresan	71,7	72,8	37,2	16,1
Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten du	25,8	25,8	15,4	11,4
Borondatezko lanaldi partziala du	3,6	5,0	3,5	3,9
Zuzendaritza-kargua du	2,5	2,1	4,0	8,1
Bere hileko diru-sarrera garbiak dira...	1.267	1.253	1.489	1.680
Beste lan bat bilatzen ari da	8,1	7,4	6,5	3,2

Bestalde, 2021ean gazteen eta 30 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren egoera konparatzeak errealitate oso desberdinak erakusten dizkigu. Hasteko, enplegua duten pertsonen ehuneko askoz handiagoa da 30 urtetik aurrera.

Eta lan egiten dutenen artean, enpresa pribatuetako soldatapekoen kopuruak behera egiten du adinak gora egin ahala, eta norberaren kontura lan egiten dutenenak, berriz, gora.

Enpresan aldi baterako kontratua edo bi urtetik beherako antzintasuna dutenen ehuneko askoz handiagoa da gazteen artean, eta handiagoa da, halaber, astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten dutenen kopurua. Beste enplegu baten bilaketa ere handiagoa da talde gazteenean.

Aitzitik, adinak gora egin ahala, handitu egiten da enpresan zuzendaritza-karguak dituztenen ehunekoa, eta handiagoa da, halaber, hileko batez besteko soldata garbia.

4.2. Gazte langabeen egoera

Gazte langabe gehienek aurretiko lan-esperientzia dute, 2019koen antzeko ehunekoetan, baina gutxiengoa dira prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutenak, nahiz eta portzentaje hori apur bat handitu den 2019. urtearekin alderatuta.

Lan bila urtebete baino gehiago daramaten gazte langabeen ehunekoak jaitsi egin da, bai eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daudenena ere, nahiz eta azken horiek gehiengo zabala izaten jarraitzen duten. Langabezia dauden hamar gaztetik zortzik lana bilatzen dute enplegu-atarien bidez, bi urte lehenago erregistratutakoaren antzeko ehunekoan.

Lana bilatzeko eremu geografikoa lurralde historikora mugatzen duten gazte langabeen ehunekoak behera egin du apur bat, eta, aldiz, atzerrian bilatzen dutenen ehunekoak gora egin du (oso modu txikian bada ere). Handitu egin da bizilekua aldatzea ekarriko lukeen lan bat onartuko luketela diotenen ehunekoak, baina oraindik ez da gehiengo izatera iristen.

Gazte langabe gehienek lanaldi partzialeko lana onartuko lukete, baita espero zena baino kategoria txikiagoko lana edota beren kualifikazioaren arabera legezkiokkeenak baino diru-sarrerara txikiagoko lana ere, eta ehuneko horiek igo egin dira 2019. urtearekiko.

Era berean, nabarmen igo da lan-esperientziarik ez izatea lana aurkitzeko oztopo nagusia dela uste duten gazte langabeen ehunekoak.

30 eta 64 urte bitarteko langabeekiko alderaketak erakusten du 30 urtetik gorako langabeek lan-esperientzia handiagoa dutela eta prestazio ekonomikoren bat jasotzen dutenen ehuneko handiagoa dela.

Lan bila urtebete baino gehiago daramaten ehunekoak handiagoa da 30 eta 64 urte bitarteko artean, bai eta Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emanda daudenena ere; aldiz, lana bilatzeko atariak erabiltzen dituztenen ehunekoak, gehiengo bada ere, txikiagoa da 30 eta 64 urte bitarteko artean 30 urtetik beherako artean baino.

30 eta 64 urte bitarteko langabeen artean, igo egin da lana bilatzea lurralde historikora mugatzen dutenen ehunekoak, eta jaitsi da bizilekua aldatzea ekarriko lukeen lana onartuko luketenena.

Lanaldi partzialeko edo espero zena baino kategoria txikiagoko lanen onarpena antzekoa da talde batean eta bestean, baina 30 eta 64 urte bitarteko langabeak uzkur daude beren kualifikazio-mailari dagozkionak baino diru-sarrera txikiagoak onartzeko.

Azkenik, 30 eta 64 urte bitartekoen taldean, oso kolektibo txiki batek aipatzen du lan-esperientziarik eza lana aurkitzeko oztopo gisa, eta, aldiz, adina da gehien aipatzen den oztopoa, eta alde handia dago gazte langabeekin alderatuta.

4.2.taula

16 eta 29 urte bitarteko langabeen egoeraren bilakaera eta 30 eta 64 urte bitarteko langabeekiko alderaketa 2021ean (%)

	Bilakaera		Alderaketa
	16-29 urte 2019	16-29 urte 2021	30-64 urte 2021
<i>(Talde bakoitzean ezaugarri hori betetzen dutenen %)</i>			
Langabezian dago	9,5	8,0	7,4
<i>Langabezian daudenen artean</i>			
Aurretiko lan-esperientzia du	77,9	77,1	96,3
Prestazio ekonomikoren bat jasotzen du	16,4	19,7	50,8
Urtebete bat baino gehiago darama lan bila	41,6	35,8	56,8
Lanbiden izena eman du enplegu-eskatzailere gisa	83,4	78,9	93,3
Enplegu-atariak erabiltzen ditu lana bilatzeko	81,4	82,0	73,3
Bere lurralde historikoaren barruan bilatzen du lana	84,0	79,7	84,8
Atzerrian ere bilatzen du lana	1,9	3,2	3,2
Bizilekuz aldatzea lekarkeen enplegua onartuko luke	36,0	44,3	21,7
Lanaldi partzialeko enplegua onartuko luke	85,6	89,5	87,2
Espero duen maila baino txikiagoa duen enplegua onartuko luke	78,2	85,6	84,5
Duen prestakuntza-mailari dagozkion diru-sarrera baino txikiagoak jasotzea onartuko luke	78,8	84,2	79,3
Lana aurkitzeko oztoporik handiena bere adina da	3,4	8,8	40,7
Lana aurkitzeko oztoporik handiena bere lan-esperientzia falta da	29,4	52,6	17,0

4.3. Emakume eta gizon gazteen arteko aldeak lan-merkatuan

Emakume eta gizon gazteen arteko aldeak lan-baldintzetan daude, okupazioaren zifretan baino gehiago; izan ere, 2021ean antzekoak dira okupatuta dauden emakume eta gizon gazteen ehunekoak. Emakume gazteek zertxobait gutxiago egiten dute lan enpresa pribatuetan, eta horren arrazoa da soldatapeko gisa lan gehiago egiten dutela administrazioan; beren kontura lan egiten dutenen kopuruak, aldiz, antzekoak dira bi taldeetan. Administrazioan lan gehiago horri lotuta, ikusten da emakumeek gizonen baino dezente lan gehiago egiten dutela zerbitzuen sektorean.

Emakumeek aldi baterako kontratuen ehuneko handiagoak dituzte, baita lanaldi partzial gehiago ere, eta horren arrazoa ez da nahiago dutela lanaldi murriztua izatea, beren borondatez astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten dutenen ehunekoek ez baitute alde hori erakusten.

Emakumeek, batez beste, 40 euro gutxiago jasotzen dituzte hilean, eta gizonek baino kopuru handiagoan bilatzen dute beste enplegu bat, beren lan-baldintzak hobetzeko.

4.3.taula

Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko emakume eta gizonen lan-baldintzen arteko alderaketa 2021ean (%)

<i>(Talde bakoitzean ezaugarri hori betetzen dutenen %)</i>	Emakume gazteak	Gizon gazteak
LAN EGITEN DU	38,4	41,0
<i>Lan egiten dutenen artean</i>		
Enpresa pribatu bateko soldatapekoa da	79,8	85,5
Bere kontura lan egiten du	3,6	3,9
Zerbitzuetako arloan lan egiten du	90,9	68,4
Aldi baterako kontratua du	56,8	49,8
2 urtetik beherako antzintasuna du enpresan	74,7	71,2
Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten du	31,2	21,1
Borondatezko lanaldi partziala du	5,8	4,3
Zuzendaritza-kargua du	2,2	1,9
Bere hileko diru-sarrerara garbiak dira...	1.231	1.273
Beste lan bat bilatzen ari da	9,4	5,6